



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

DBH

2. MAILA

IKASLEAK

ITEM LIBERATUAK

**EUSKARAZKO
HIZKUNTZA
KOMUNIKAZIORAKO
KONPETENTZIA**



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Argitaratzailea: ISEI-IVEI

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9-3°

48015 Bilbo

Tel. 94 476 06 04

info@isei-ivei.net

www.isei-ivei.net

2019ko otsaila

AURKIBIDEA

1. AHOZKO PROBA (ENTZUMENA).....	4
1.1. Melissa katua.....	4
1.2. Wii	7
1.3. Euskaraz bai.....	10
1.5. Boluntarioak.....	16
2. IRAKURMENA.....	19
2.1. Airbag	19
2.2. Banaketa enpresa.....	23
2.3. Santo Tomas azoka.....	28
2.4. Eskola kirol egokitua.....	32
2.5. Euskararen batasuna	41

I. AHOZKO PROBA (ENTZUMENA)

I.1. Melissa katua

Galderak irakurri, testua entzun eta galderei erantzun.



[Melissa katua. mp3](#)



01

Hautatu, ondorengo aukeren artean, testuaren esanahia hobeto jasotzen duena:

- A. Melissa ez da katu mimatua.
- B. Melissak basa bizitza atsegin du.
- C. Melissa eta bere laguna den narratzailea baztertuak sentitzen dira.
- D. Katuek arratsaldeko orduetan bakardadea eta maitasun falta sentitzen dute.

02

Zure ustez, testu honen narratzailea...

- A. Katu bat da.
- B. Melissaren jabea da.
- C. Katuak atsegin dituen norbait da.
- D. Testuak kontatzen duen istorioarekin zerikusirik ez duen norbait da.

03

Zure ustez, zein da testu honen helburua?

- A. Testua entzunez, literaturaz gozatzea.
- B. Katuen sentimenduaren mundua ikertzea.
- C. Katuen bizimoduari buruz hainbat ezaugarri ematea.
- D. Katu zehatz bati buruzko gaurkotasuna duen berria ematea.

04

Zein da Melissa katuari kendu ezin izan dion mania?

- A. Sofa gainean etzatea.
- B. Zaborretan arakatzea.
- C. Poteko jana atsegin izatea.
- D. Etxean sartzera koan kokotean biribiltzea.

05

Zer esaten zieten lagunek tabernetako solasaldietan?

- A. Kaixo, basa katuak!
- B. Zer moduz sofa-katu?
- C. Noiz ezkontzen zarete?
- D. Joanak al zarete zabor pilotan miazera?

06

Zer adierazten dizu testu bukaerako esaldi honek? “ ...arratseko ordu berezietan, katuok zein triste sentitzen garen...”

- A. Maitasunaren falta.
- B. Arratseko orduen tristura.
- C. Hizketan ari dena katua dela.
- D. Katuak ulertzen ez dituen jendilaje asko dagoela.

07

Nolakoa da Melissa?

- A. Zuria.
- B. Txarolezkoa.
- C. Beltza eta zuria.
- D. Kateme arrunta da.

08

Zer jaten du Melissak?

- A. Pote jana.
- B. Erosten dioten poteko jana
- C. Zaborretan topatzen duena.
- D. Senari jarraituz, hor zehar harrapatzen duena.

I.2. Wii

Galderak irakurri, testua entzun eta galderei erantzun.



[wii.mp3](#)



01

Zelako bideo jokoak aipatzen dituzte testuan?

- A. Mugitzen diren bideo jokoak.
- B. Ariketa fisikoak egiteko bideo jokoak.
- C. Ez gizentzeko asmatutako bideo jokoak.
- D. Zenbait kirol ikasteko bideo joko bereziak.

02

Zergatik bideo jokoek izan dute irudi txarra?

- A. Oso zailak direlako.
- B. Nagusientzat aspergarriak direlako.
- C. Amerikan bakarrik ezagutzen dituztelako.
- D. Umeek geldirik eta bakarrik jolasten dutelako.

03

Zenbat kilo ahal dira galdu?

- A. 30 minututan 4 kilo.
- B. Egunero jolasten, 6 kilo.
- C. 6 astetan, egunero 30 minutu jolasten, 4 kilo.
- D. Ezin da jakin seguru, 4 astetan 6 kilo gutxi gorabehera.

04

Zer behar da wii jokoan aritzeko?

- A. Wii kontsola baino ez.
- B. Wii jokoa eta ordenagailua.
- C. Wii jokoa eta sentsore batzuk.
- D. Wii kontsola, mandoa eta telebista.

05

Nola jolasten da?

- A. Mandoa fisikoki mugitzean, telebistako irudia ere mugitzen da.
- B. Lehendabizi ikasi behar dituzu jokoak eta ondoren zu jolasten zara.
- C. Telebistan agertzen diren ariketa fisikoak zeuk errepikatu behar dituzu.
- D. Teklatu baten bidez, telebistako pantailan agertzen diren irudiak lortzen duzu mugitzea.

06

Hemen, Gabonetan, saldu al dira horrelako jokoak?

- A. Ameriketan arrakasta gehiago izan dute.
- B. Bai, arrakasta handia izan dute, Europan bezala.
- C. Ez dute Europan izan dute bezainbesteko arrakasta.
- D. Hemen ez dute arrakasta handirik izan; ezta Europan ere.

07

Zein da testu honen ideia nagusia?

- A. Wii bideo jokoa oso agresiboa da.
- B. Nintendoren joko guztiak azaltzea.
- C. Wii bideo jokoa asko saldu dute Estatu Batuetan.
- D. Wii bideo jokoiari esker, kirola egiten, argaltzen da

I.3. Euskaraz bai

Galderak irakurri, testua entzun eta galderei erantzun.



[euskaraz_bai.mp3](#)



01

Zer proposatzen digute testuan?

- A. Zita bat.
- B. Kontzertu batera joatea.
- C. Mendian ibilbide bat egitea.
- D. Geratzea toki batean arratsaldea pasatzeko.

02

Zer aztertu nahi dute?

- A. Barakaldo herrian ibilbidea.
- B. Kontseiluak lanean emandako azken 10 urteak.
- C. Barakaldon euskaraz egin duten azkeneko 10 urteak.
- D. Euskaraz bai erakundeak egiteko duena datozen 10 urteetan

03

Zein da xedea?

- A. Testuan ez da zehazten.
- B. Pausoz pauso, helburua lortzea.
- C. Orain arte egin denarekin jarraitzea.
- D. Lortu den puntutik abiatuta, harago joatea.

04

Testuaren arabera, zer egin behar duzu sarrera bat lortzeko?

- A. Sarrera erosi.
- B. Ezer ere ez; dohainik da eta.
- C. Helbide elektroniko batean sartu.
- D. Tokian bertan agertu, sarrerarik ez baitago

05

Noiztik erabiltzen da airbag-a autoetan?

- A. 1981etik hona.
- B. II. Mundu gerratik hona.
- C. Autoetan gaur egun erabiltzen da.
- D. 1980- 1981 arteko urteetatik hona.

06

Testu hau...

- A. albiste da.
- B. iragarkia da.
- C. elkarrizketa da.
- D. instrukziozkoa da.

I.4. Alkatearen agindua

Galderak irakurri, testua entzun eta galderei erantzun.



[alkatearen.mp3](#)



01

Zergatik ez dira berdinak gaurko gazteak eta garai batekoak?

- A. Gaez irteteko gurasoen baimena izatea nahikoa ez delako.
- B. Gaez ateratzeko gurasoei "peloteoa" egitea merezi duelako.
- C. Gaez ateratzeko gurasoekin eztabaida ugari egin behar direlako.
- D. Gurasoak beraien seme-alabak gaez irteteko konbentzitu ezinak direlako.

02

Zein da testu honen ideia nagusia?

- A. Herri bateko alkateak gazteei kalera irtetea debekatu diela.
- B. Kanariar irletako alkateak autoritario eta atzerakoi samarrak direla.
- C. Herri bateko alkatea ados jarri da gurasoekin irtenaldiak arautzeko.
- D. Alkate batek gaez kalean ibiltzeko gazteen askatasuna murriztu duela.

03

Zer testu mota da hau?

- A. Albistea.
- B. Iragarkia.
- C. Eztabaida.
- D. Erreportajea.

04

Nori zuzendua dago testu hau?

- A. Gazteei.
- B. Jende guztiari.
- C. Gazteen gurasoei.
- D. Udaletako alkateei.

05

Zein da testuaren igorlea?

- A. Albiste irratsaio baten kazetaria.
- B. Irratsaio baten esataria.
- C. Beste herri eta kulturei buruzko irratsaio baten kazetaria.
- D. Entretenezko helburua duen irratsaio baten esataria.

06

Zein izan da alkatearen erabakia?

- A. Gaueko 11etatik aurrera ez dadila 16 urtez behekorik etxean ibili.
- B. Gaueko 12etatik aurrera ez dadila 16 urtez behekorik kalean ibili.
- C. Gaueko 11etatik aurrera ez dadila 18 urtez behekorik kalean ibili.
- D. Gaueko 11etatik aurrera ez dadila 16 urtez behekorik kalean ibili.

07

Testuak dioenez, zer gertatuko da jaiegunetan gazteak kalean ibiliz gero?

- A. Gaueko 12ak arte, ezer ez.
- B. Gazteei isuna jarriko diete.
- C. Gazteek zigorren bat izango dute.
- D. Gurasoek zigorren bat jasoko dute.

I.5. Boluntarioak

Galderak irakurri, testua entzun eta galderari erantzun.



[boluntarioak.mp3](#)

01

Non dauka egoitza Vost elkarteak?

- A. Europan.
- B. Euskal Herrian.
- C. Espainiako zenbait herritan.
- D. Ez dauka inongo kokapenik; sare sozial bat da eta.

02

Zenbat diru irabazten dute boluntarioek Vost elkarteetan lan egiten?

- A. Ezer ez; boluntarioak dira eta.
- B. Diru gutxi, gehiena boluntarioek egiten baitute.
- C. Diru asko eta jendeari laguntzeko erabiltzen dute.
- D. Zertxobait; dirua elkarteak hobetzeko erabiltzen da.

03

Zer lan mota egiten dute, besteak beste, boluntario digital hauek?

- A. Informatikako gaietan laguntzen dute.
- B. Sare sozialetan eraso kasuak atzematen dituzte.
- C. Sare sozialetako informazio faltsua gezurtatzen dute.
- D. Sare sozialetan, enpresetako iruzurrak aurkitzen laguntzen dute.

04

Zertarako erabiltzen du Vost elkarteak STOP buloak?

- A. Zurrumurruak sarean zehar zabaltzeko.
- B. Akatsak dituen informazioa zabaltzaileak aurkitzeko.
- C. Sarean informazio fidagarriaren espazioak zabaltzeko.
- D. Akatsak dituen informazioa biltzeko eta agerian uzteko.

05

Informazio hauetatik, zein salatuko lukete elkarte honetan?

- A. Herrian zurrumurru faltsu bat zabaltzea.
- B. Irratiko albiste batean gezurretan aritzea.
- C. Interneten zabaltzen den istripu bati buruzko informazio faltsua.
- D. Telefonoz pertsona bati buruzko bulo bat jende askoren artean zabaltzea.

06

Zergatik zabaltzen dira gezurrezko informazioak sarean?

- A. Ziur ez dakite. Arrazoi asko egon daitezke.
- B. Jendea engainatzeko; intentzio txarra dago atzean.
- C. Asmo onez ia beti: jendea arriskuen aurrean hobeto prebenitzeko.
- D. Oraindik ez dakite; elkartean aztertzen ari dira gezur horien arrazoia

07

Zertarako egin dute elkarrizketa hau?

- A. Boluntarioak bilatzeko.
- B. Zurrumuruak bazterrarazteko.
- C. Elkartearen lana ezagutarazteko.
- D. Elkartearen urteurrena ospatzeko.

08

Eman arrazoi bat elkarte honek egiten duen ekarpena era positiboan baloratzeko, entzun duzun informazioaren arabera:

.....

2. IRAKURMENA

2.1. Airbag

Testua irakurri eta galderei erantzun.


NOLA FUNTZIONATZEN DU... AIRBAG-AK?

Gaur egun hain ezaguna dugun airbag-aren ideia ez da batere berria: II. Mundu Gerran patentatu zuten lehenengoz. Dena den, 1980/81ean hasi ziren autoetan erabiltzen eta orduz geroztik garatu eta hobetu egin dituzte.

Ez ditugu airbag-en xehetasunak eta ereduen arteko desberdintasunak aipatuko, baina bai zein den airbag-aren oinarri-oinarrizko funtzionamendua.

Airbag-ak oinarrizko hiru osagai ditu:

- 1) sentsorea eta sistema elektronikoa,
- 2) lehergailua eta
- 3) poltsa bera.



1) Sentsoreak abiadura-aldaketak jasotzen ditu eta autoaren aurrealdean dago.

Sentsore horrek ibilgailuaren abiadura-gutxitze ia bat-batekoa neurtzen duenean (gutxi gorabehera 15 km/h abiaduran pareta joko balu adinakoa), seinale elektrikoa bidaltzen du sistema elektrikorara.

2) Sistema elektrikoak lehergailuan txinparta sortarazi eta lehergailua lehertu egiten da. Ondorioz nitrogeno gasa sortzen da.

3) Azkenik, sortutako nitrogenoak poltsa puztu egiten du, bidaiari(ar)en gorputz edota buruak poltsa jo aurretik.

Hori bai, erabat puztu eta bi segundora poltsa hustu egiten da bidaiaria(k) ez itotzeko.



Prozesua:

				Bularralde		
			Gorputza	eta	Buru eta	
Abiaduraren	Sentsoreak	Poltsaren	aurrera	poltsaren	poltsaren	
gutxitze ia	seinalea	kaxa	egiten	Poltsa	arteko	arteko
bat-batekoa	bidali	ireki	hasi	puztu	kontaktua	kontaktua



Segundo-milarenak

[Elhuyar](#), 2002/02/14

01

Noiztik erabiltzen da airbag-a autoetan?

- A. 1981etik hona.
- B. II. Mundu gerratik hona.
- C. Autoetan gaur egun erabiltzen da.
- D. 1980- 1981 arteko urteetatik hona.

02

Zerk hanpatzen du airbag-aren poltsa?

- A. Txinpartak.
- B. Sentsoreak.
- C. Nitrogeno gasak.
- D. Sistema elektronikoak.

03

Testu hau...

- A. narrazio bat da.
- B. instrukzio testu bat da.
- C. azalpenezko testu bat da.
- D. komunikabideetako testu bat da.

04

Zein da airbag-aren funtzioa?

- A. Bidaiariak babestea.
- B. Abiadura kontrolatzea.
- C. Seinale elektrikoak bidaltzea.
- D. Aurrez aurreko kolpeak saihestea.

05

Zein da testuaren helburua?

- A. Airbag-a nola sortu zen eta zertarako kontatzea.
- B. Airbag-aren osagaiak eta haien xehetasunak adieraztea.
- C. Airbag-aren osagaiak eta oinarrizko funtzionamendua azaltzea.
- D. Airbag-aren osagaiak eta ereduaren arteko desberdintasunak esplikatzea.

2.2. Banaketa enpresa

Galderak irakurri, testua entzun eta galderari erantzun.

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu,
Donostialdean eta Tolosaldean.

Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara 943 30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektroniko honetara: lanpoltsa@etxeraino.net

01

Zein da testuaren helburua?

- A. Langileak eskatzea.
- B. Enpresaren baldintzak erakustea.
- C. Enpresaren ezaugarriak iragartzea.
- D. Banaketa enpresa non dagoen esatea.

02

Zergatik aipatzen dira testuan Donostialdea eta Tolosaldea?

- A. Enpresa toki horietan dagoelako.
- B. Banatzaileak toki horietan mugituko direlako.
- C. Langileak toki horietakoak izan behar direlako.
- D. Toki horietara eraman behar direlako langileen datuak.

03

Zergatik dago letra lodiz: “Ezinbestekoa da autoa izatea”?

- A. Testuaren izenburua delako.
- B. Banaketa ezin delako egin kamioiez.
- C. Eskaintzen den lana egiteko autoa behar delako.
- D. Ikusmen-arazoak dituztenek hobeto irakurtzeko

04

Zergatik esaten dute “lehenbailehen” azken esaldian?

- A. Dei asko espero dutelako.
- B. Ez dagoelako presarik kontaktua egiteko.
- C. Iragarkia hurrengo egunean kenduko dutelako.
- D. Langileak behar dituzte eta azkar aurkitu nahi dituztelako.

05

Lan horretan interesatuta dagoena, nola jarriko da kontaktuan enpresarekin?

- A. Telefonoz bakarrik.
- B. Gutun baten bidez.
- C. Telefonoz edo helbide elektronikoz.
- D. Langileak enpresa bertaraino joan behar du.

06

Lan orduak ilunago nabarmenduta daude; zein da lan honetarako eskatzen den ordutegia?

A.

ORDUAK	EGUNAK						
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
04:00-06:00							
06:00-08:00							
08:00-10:00							
10:00-12:00							

B.

ORDUAK	EGUNAK						
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
04:00-06:00							
06:00-08:00							
08:00-10:00							
10:00-12:00							

C.

ORDUAK	EGUNAK						
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
04:00-06:00							
06:00-08:00							
08:00-10:00							
10:00-12:00							

D.

ORDUAK	EGUNAK						
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
04:00-06:00							
06:00-08:00							
08:00-10:00							
10:00-12:00							

07

Nork egin du testua?

- A. Langile batek.
- B. Kazetari batek.
- C. Banatzaile bila dabilen enpresak.
- D. Produktu baten propaganda egiten dutenek.

08

Non aurkitzen ditugu honelako testuak?

- A. Egunkarietan.
- B. Testu liburuetan.
- C. Entziklopedietan.
- D. Blog eta web guneeetan.


09

Zeintzuk dira testuaren ideia nagusiak?

- A. Banaketa enpresarekin harremanetan jartzeko datuak.
- B. Banaketa enpresak banatzaileak behar dituela eta lan baldintzak.
- C. Langileek lana non egingo duten: Tolosaldean eta Donostialdean.
- D. Enpresara telefonoz deitu behar dela lehenbailehen edo datuak helbide elektronikora bidali.

2.3. Santo Tomas azoka

Testua irakurri eta galderei erantzun.



ABENDUAK 21 SANTO TOMAS FERIA (BILBO, DONOSTIA, GASTEIZ...)

XIX. mendean, Euskal Herriko laborantzako lur sail gehienak errentariak (maizterrak) lantzen zituzten. Errentariak lur sailarekin zuen lotura juridikoa aitarengandik semearengana iragaten zen, belaunaldiz belaunaldi.

Lurraren errenta beti egun berean ordaintzen zen, normalean, San Martin egunean, baina askotan epea luzatu egiten zen Santo Tomas egunera arte.

Nagusiak, normalean, ez zituen lurrak lantzen, eta hirian bizi izaten zen. Baserritar asko eta asko hirietara joaten ziren egun seinatu hartan, alokairua ordaintzeko diruarekin eta kapoi pare batekin. Ordainetan, bazkari bat ematen zien.

Baserritarrek, hiriburuan zeudela aprobetxatuta, herrietako denda xumeetan aurkitzen ez zituzten artikuluak erosten zituzten, eta, horrela, baserriko produkturik onenak saldu. Urteak joan urteak etorri, feria antolatu beharra zegoela ikusi zen, eta hala sortu zen Santo Tomasetakoa. Euskal Herriko udalerrietan garraiobideak hobetu zirenean eta baserri guztietaraino pistak egin, feria ez zen gehiago beharrezko izan. Baina baserritarrak, ordurako baserriaren lur gehien jabe eginak, tradizio zaharrari heldu zion, eta jarraitu zuen hirietara etortzen Santo Tomasetan. Horrexegatik, feriak bizirik iraun du, gaur arte.

Karramarro aldizkaria

01

Zein da testuaren helburua?

- A. Jendea Bilboko Feriara joatera animatzea.
- B. XIX. mendeko gizartearen ezaugarriak aztertzea.
- C. Hobeto ulertaraztea Santo Tomas feriaren jatorria.
- D. Azpimarratzea baserritarren produktuen garrantzia.

02

Noiztik dugu Santo Tomas feria?

- A. Antzina- antzinatik.
- B. Duela bi mendetik hona.
- C. Erdi Arotik gaur arte iraun duen tradizioa da.
- D. Baserritarrek nagusiei errentak ordaintzen zizkietenetik.

03

Antzina, zertara joaten ziren baserritarrak hirira Santo Tomas egunean?

- A. Feria eguna ospatzera.
- B. Errenta ordaintzera eta nagusiaren etxean bazkaltzera.
- C. Errenta ordaintzera, artikuluak erostera eta produktuak saltzera.
- D. Baserriko produktu onenak hirian saltzera eta errenta ordaintzera.

04

Zer egin behar zuen nagusiak egun hartan?

- A. Ez zuen inolako betebeharririk.
- B. Bazkari bat prestatu baserritarrentzat.
- C. Baserriko produkturik onenak hiriburuetako dendetan saltzea.
- D. Errentaren dirua eta bi kapoiak hartzeaz gain, bazkaria ematea.

05

Zergatik esaten du egileak: “...udalerrietan garraiobideak hobetu zirenean... feriaz ez zen gehiago beharrezkoa izan”?

- A. Gaur egun interneten bidez egiten direlako erosketa asko.
- B. Baserritarrek autoa erabiltzen dutelako esnea banatzeko.
- C. Errepide berriei esker, errazago delako saldu eta erostea edozein lekutan.
- D. Baserritarrak lurraren jabe direnean ez dutelako gustuko feriaz feriaz ibiltzea.

06

Zergatik ez zen desagertu feriaz egun hori?

- A. Baserritarrak lurraren jabe egin zirelako.
- B. Euskal Herriko udalerrietan garraiobideak hobetu egin zirelako.
- C. Baserritarrek egun seinalatu horretan feriaz ospatzera hirietara joaten segitu zutelako.
- D. Baserritarrak herrietako denda xumeetan erosten zituztelako baserrietan ez zituzten produktuak.

07

EGIA ALA FALTSUA? Markatu "X" batez laukitxo egokia, adibidean bezala:

	EGIA	FALTSUA
0. Santo Tomas feriaz ari dira testu honetan.	X	
1. San Martin egunean ordaintzen zen arren lurraren errenta, Santo Tomas egunera arte luzatu ohi zen.		
2. Santo Tomas eguna urteen arabera aldatu egiten da, Aste Santua bezala.		
3. Abenduaren 21ean da Santo Tomas eta egun horretan egiten da feria.		
4. Santo Tomas egunean baserritarrak hirira joaten ziren nagusiari lur-sailen errentak ordaintzera.		
5. Santo Tomas egunean produktuen salerosketa egiten zen.		
6. Feriak gaur egunera arte iraun du baserritarrek tradizio zaharra mantendu baitute.		

08

Zein izenburuk bilduko luke testuak adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Aurtengo Santo Tomas.
- B. Santo Tomas feriaren jatorria.
- C. Santo Tomas egunaren garrantzia.
- D. Gaurko feriaren ezaugarri nagusiak.

2.4. Eskola kirol egokitua

Testua irakurri eta galderei erantzun.



ESKOLA KIROL EGOKITUA

URRITASUNAK DITUZTEN HAUR ETA GAZTE(TXO)ENTZAT
8 ETA 18 URTE ARTEKOENTZAT
BI ARRATSALDE ASTEAN, URRITIK EKAINERA
KIROL ANITZEKO 9 LARUNBAT

Bizkaiko Kirol Egokituko Federazioa *irabaz asmorik gabeko erakunde soziala da*, kirolariak, taldeak eta teknika alorreko langileak osatua, *eta* bere xedeen artean ezintasuna duten pertsonen artean kirol praktika sustatzea eta kirol egokitua gizarte osoan ezagutaraztea daude.

Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduta EZINTASUNA DUTEN PERTSONEI EGOKITURIKO ESKOLA KIROLA programa aurkezten du.

Programa hau ezintasunen bat, funtzionala, sentsoriala, intelektuala edota mistoa, duten eskola haur eta gazte(txo)ei zuzentzen zaie, kirol praktika errazteko gogoz (intentzioz/borondatez).

Asmoa talde homogeenak sortzea da, haurren ezintasuna eta adina kontuan izanik, eta programaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Kirol mota desberdinak ezagutaraztea.
- Balio positiboetan oinarritutako elkarbizitzarako jolas eta kirol gunea eskaintzea.
- Aisiarako alternatiba eskaintzea ezintasuna duten haurrei.
- Kirola sustatzea ezintasunen bat duten haurren artean.
- Lehiaketako kirolarekin lehen harreman arina hastea.

Hori aurrera eraman ahal izateko, (-)kirol egokitan eta ezintasunean espezializaturiko pertsonak, kirol material ohikoa eta egokitua ditugu, *eta, beharrezkoa balitz, haurren balorazio funtzionalak egin daitezke.*



BILBAO	GETXO
<p>Ezintasun intelektuala duten 8 eta 12 urte bitarteko haurrak</p> <p>Urriaren 8tik ekainaren 17ra</p> <p>Ostegunetan 17:00etik 19:00etara</p> <p>EKINTZAK: Aurre-kirol jolasak, arau sinpleak dituztenak</p> <p>Cervantes ikastetxea</p> <p>Lersundi kalea, 30</p>	<p>Ezintasun intelektuala duten 8 eta 12 urte bitarteko haurrak</p> <p>Urriaren 5etik ekainaren 14ra</p> <p>Astelehen eta asteazkenetan 17:00etik 18:30etara</p> <p>EKINTZAK: Aurre-kirol jolasak, arau sinpleak dituztenak</p> <p>Gobela kiroldegia</p>

<p>48009 Bilbao</p> <p>Ezintasun intelektualak duten 13 eta 18 urte bitarteko gazte(txo)ak</p> <p>Urriaren 6tik ekainaren 15ra</p> <p>Astearte eta ostegunetan 17:00etik 19:00etara</p> <p>EKINTZAK: Multikirola, banakako eta taldeko kiroletarako hastapen jolasak (badminton, tenisa, eskubaloia, saskibaloia, futbola...)</p> <p>Cervantes ikastetxea</p> <p>Lersundi kalea, 30</p> <p>48009 Bilbao</p>	<p>Luis López Osés kalea, z/g</p> <p>48930 Getxo</p> <p>Ezintasun intelektualak duten 13 eta 18 urte bitarteko gazte(txo)ak</p> <p>Urriaren 6tik ekainaren 15ra</p> <p>Astearte eta ostegunetan 17:00etik 19:00etara</p> <p>EKINTZAK: Multikirola, banakako eta taldeko kiroletarako hastapen jolasak (badminton, tenisa, eskubaloia, saskibaloia, futbola...)</p> <p>Andra Mari ikastetxea</p> <p>Peña Santa Marina kalea, 12</p> <p>48993 Getxo</p>
<p>BILBAO</p>	<p>ARRIGORRIAGA</p>
<p>Ezintasun funtzional, fisikoa edo burmuineko paralisia, duten 8 eta 18 urte bitarteko haur eta gazte(txo)ak</p> <p>Urriaren 9tik ekainaren 18ra</p> <p>Astelehenean 19:00etatik 20:30etara</p> <p>Ostiraletan 18:00etatik 20:00etara</p> <p>EKINTZAK: Multikirola, banakako eta taldeko kiroletarako hastapen jolasak (badminton, tenisa, eskubaloia, saskibaloia, futbola...) gurpildun aulkiaren erabileran oinarrituta, haurren autonomia lortzeko funtsezko trebetasuntzat/a baita.</p> <p>Txurdinaga kiroldegia</p> <p>Club Deportivoren Zirko Amateurraren kalea,2</p> <p>48004 Bilbao</p>	<p>Ezintasun intelektualak duten 13 eta 18 urte bitarteko gazte(txo)ak</p> <p>Urriaren 5tik ekainaren 14ra</p> <p>Astelehen eta asteazkenetan 16:30etik 18:00etara</p> <p>EKINTZAK: Multikirola, banakako eta taldeko kiroletarako hastapen jolasak (badminton, tenisa, eskubaloia, saskibaloia, futbola...)</p> <p>Arrigorriaga Institutua</p> <p>Arrigorriaga - La Peña kalea, z/g</p> <p>48480 Arrigorriaga</p>

01

Nork antolatu du kirol programa?

- A. Bizkaiko Foru Aldundiak.
- B. Bizkaiko eskolek eta polikiroldegiek.
- C. Bizkaiko Kirol Egokituko Federazioak.
- D. Ezintasunak dituzten pertsonen elkarteak.

02

Zer hartuko da kontuan kirol programako taldeak egiteko orduan?

- A. Adina eta ezintasuna.
- B. Parte hartu nahi izatea.
- C. Umeen eta gazteen jaioterria.
- D. Programaren helburu nagusiak.

03

Noiz egingo da kirol programa?

- A. Urte osoko larunbat guztietan.
- B. Ikasturte garaian, gutxi gorabehera.
- C. Urte osoko asteartetan eta ostegunetan.
- D. Udan, haurrak eta gazteak oporretan daudenean.

04

Ezintasunen bat duten pertsonak zergatik behar dute kirol eskaintza hau?

- A. Kirola egin nahi badute zailtasunak dituztelako.
- B. Ohitura gutxi dutelako taldeko kirol jardueretarako.
- C. Instalazio bereziak behar dituztelako kirola egiteko.
- D. Ohitura gutxi dutelako banakako kirol jardueretarako.

05

Osatu taula falta diren datuekin:

	astelehena		asteartea		asteazkena		osteguna		ostirala	
	adina	ordua	adina	ordua	adina	ordua	adina	ordua	adina	ordua
Bilbo							8-12			
	8-18	19:00 20:30		17:00 19:00			13-18	17:00 19:00	8-18	
Getxo	8-12	17:00 18:30	13-18			17:00 18:30	13-18	17:00 19:00		
Arrigorriaga	13-18				13-18	16:30 18:00				

06

Zein da testuaren helburua?

- A. Kirolaren alde onak iragartzea.
- B. Kirol material egokitua eskaintzea.
- C. Kirol programa bati buruz informatzea.
- D. Ezintasunak dituzten haur eta gazteen aldeko kanpaina egitea.

07

Testu honek bi atal ditu; haien edukia laburbiltzen duen esaldia aukeratu:

- A. Lehenengoan, “Eskola Kirol Egokitua” programa azaltzen da eta, bigarreanean, Bizkaiko kiroldegietako kirol ekintzen berri ematen da.
- B. Lehenengoan, “Eskola Kirol Egokitua” programa azaltzen da eta, bigarreanean, aurtengo kirol egokituen eskaintzaren berri ematen da.
- C. Lehenengoan, “Eskola Kirol Egokitua” programa azaltzen da eta, bigarreanean, Bizkaiko eskoletako kirol eskaintzaren berri ematen da.
- D. Lehenengoan, Bizkaiko Kirol Egokituko Federazioa aurkezten da eta, bigarreanean, Bilboko kirol egokituen eskaintzaren berri ematen da.

08

Zein da testuaren gaia?

- A. Mota desberdinetako kirolen antolaketa.
- B. Haur eta gazteentzako kirol desberdinetako lehiaketen iragarpena.
- C. Urritasunak dituzten haur eta gazteentzako kirol programaren antolaketa.
- D. Haur eta gazteentzako kirol programan urritasunak dituztenen parte hartzea.

2.5. Boluntarioak

Testua irakurri eta galderei erantzun.



01

Non dauka egoitza Vost elkarteak?

- A. Europan.
- B. Euskal Herrian.
- C. Espainiako zenbait herritan.
- D. Ez dauka inongo kokapenik; sare sozial bat da eta.

02

Zenbat diru irabazten dute boluntarioek Vost elkarteetan lan egiten?

- A. Ezer ez; boluntarioak dira eta.
- B. Diru gutxi, gehiena boluntarioek egiten baitute.
- C. Diru asko eta jendeari laguntzeko erabiltzen dute.
- D. Zertxobait; dirua elkarteak hobetzeko erabiltzen da.

03

Zer lan mota egiten dute, besteak beste, boluntario digital hauek?

- A. Informatikako gaietan laguntzen dute.
- B. Sare sozialetan eraso kasuak atzematen dituzte.
- C. Sare sozialetako informazio faltsua gezurtatzen dute.
- D. Sare sozialetan, enpresetako iruzurrak aurkitzen laguntzen dute.

04

Zertarako erabiltzen du Vost elkarteak STOP buloak?

- A. Zurrumurrak sarean zehar zabaltzeko.
- B. Akatsak dituen informazioa zabaltzaileak aurkitzeko.
- C. Sarean informazio fidagarriaren espazioak zabaltzeko.
- D. Akatsak dituen informazioa biltzeko eta agerian uzteko.

05

Informazio hauetatik, zein salatuko lukete elkarte honetan?

- A. Herrian zurrumurru faltsu bat zabaltzea.
- B. Irratiko albiste batean gezurretan aritzea.
- C. Interneten zabaltzen den istripu bati buruzko informazio faltsua.
- D. Telefonoz pertsona bati buruzko bulo bat jende askoren artean zabaltzea.

06

Zergatik zabalitzen dira gezurrezko informazioak sarean?

- A. Ziur ez dakite. Arrazoi asko egon daitezke.
- B. Jendea engainatzeko; intentzio txarra dago atzean.
- C. Asmo onez ia beti: jendea arriskuen aurrean hobeto prebenitzeko.
- D. Oraindik ez dakite; elkartean aztertzen ari dira gezur horien arrazoia

07

Zertarako egin dute elkarrizketa hau?

- A. Boluntarioak bilatzeko.
- B. Zurrumurruek bazterrarazteko.
- C. Elkartearen lana ezagutarazteko.
- D. Elkartearen urteurrena ospatzeko.

08

Eman arrazoi bat elkarte honek egiten duen ekarpena era positiboan baloratzeko, entzun duzun informazioaren arabera:

.....

2.5. Euskararen batasuna

Testua irakurri eta galderari erantzun.

EUSKARAREN BATASUNA

Garai honetan hizkuntzalari askok hainbat ekarpen egin dituzte euskara batuaren oinarria zehazteko. Federico Krutwig hizkuntzalariak hizkuntza estandar gisa idazle klasikoek erabilitako lapurtera proposatu zuen. Honek zera zioen: "*Batua asmatua dago dagoeneko, Leizarragak XVI. mendean bateratu baitzuen euskara. Batua lapurtera klasikoa da*". Nahiz eta lan handia egin zuen Gerra Zibilaren ostean Euskaltzaindia berpizteko, ez zuten aukeratu berak egindako proposamen hori.

Euskara bateratzeko premia horrek hortxe zirauen oraindik. 1963. urtean Baionan elkartu zen Euskaltzaindia. Bilera horretan Euskal Idazkaritza erakundea sortu zen, Laberguerieren zuzendaritzapean. Bost urte geroago, 1968. urtean, Ermuan elkartu ziren berriro, eta bertatik Idazleen Elkartea sortu zen.



1968. urtean, Euskaltzaindiaren urteurrena zela eta, Arantzazun bilera bat egiteko deia egin zuten. Bilera horretan euskara batuaren irizpide lexikografikoak eta morfologikoak finkatu zituzten, eta 1973. urtean osatu zuten hori guztia, aditz konjugazioari buruzko proposamen baten bidez.

Araudi horren ondoren euskara batuaren aldeko eta aurkako gizarte-eztabaidak zabaldu ziren. Kritikak ugariak izan ziren eta iragarpenek ez zioten etorkizun luzeegirik opa *hizkuntza artifizial* horri. Nolanahi ere, hezkuntzaren munduan onartzen eta zabaltzen hasiko da.

Euskara batuaren aldeko nahiz aurkako iritziak

Betidanik euskarak hizkuntzalarien arreta erakarri du. Jatorri ezezaguneko hizkuntza bat izateaz gain, zenbait euskalkiz eta hainbat aldaeraz osatua dago, eta hori beti arazo bat izan da idazleentzat. Zer hizkuntza hautatu behar zuten

pertsona gehienengana iristeko?

1918. urtean sortu zenez geroztik, Euskaltzaindiak edo Euskararen Akademiak hainbat ikerketa egin eta hizkuntza-eredu idatzi bakar bat erabil dadila bultzatu du, euskalkien arteko desberdintasunek berekin dakartzaten arazoak eta komunikazio-zailtasunak gainditzeko.

Azkenik, 1968. urtean euskara batua sortu zen, eta horrek, batzuk gogobeterik utzi bazituen ere, beste batzuk haserrarazi egin zituen. Nolanahi ere, euskara batuak, jaio zen unetik bertatik, euskalkien gainetik dagoen elementu bat nahi izan du, eta euskaldunen arteko komunikaziorako tresna.

Horren aurkako iritziek, batetik, beste euskalki batzuen aldean gipuzkerak batuan bereganatu zuen gehiegizko garrantzia aipatzen zuten, eta bestetik, hizkuntza bakar bat erabiltzeak euskalkien kontserbaziorako berekin zekarren arriskua.

Euskara batuaren aldeko argudioek azpimarratzen zuten idazteko eredu bat zela euskara batua, eta gainera, hori sortzeko autore klasikoetara jo zutela, eta beraz, kulturaren eragina nabarmena zela. Gainera, euskara batuak euskalki guztiak bateratu eta indarra emango zion hizkuntzari.

Nahiz eta hasieran bazirudien aurkako iritziek jarraitzaile gehiago bereganatuak zituztela, denbora igaro ahala euskara batua geroz eta garrantzia handiagoa hartzen joan da hezkuntzan, hedabideetan eta Administrazioan. Herri mailan oraindik ere euskalkiak erabiltzen dira.

Koldo Zuazo unibertsitate-irakasle eta hizkuntzalariaren iritziz, euskara batua eta euskalkiak ez dira antagonikoak, osagarriak baizik.

hiru.eus (egokituta), 2016/12/12an kontsultatua.

01

Zein zen Federico Krutwig-en iritzia euskara batuari buruz?

- A. Ez zela euskara bateratu behar.
- B. Euskara batua idazle klasikoena zela.
- C. Euskara batua Leizagarren herrikoa zela.
- D. Euskara bateratua lapurtera klasikoa zela.

02

Zein bileratan erabaki ziren euskara bateratzeko lehen irizpideak?

- A. 1968an, Ermuan.
- B. 1963an, Baionan.
- C. 1968an, Arantzazun.
- D. 1973an, Arantzazun.

03

Hasieran, gizarteak ondo hartu zuen euskara bateratzea?

- A. Batzuek bai eta besteek ez.
- B. Ez, etorkizun laburra opa zioten.
- C. Bai, Euskaltzaindiak bultzatu zuen.
- D. Bai, hezkuntzaren munduan zabaldu zen.

04

Zein arazo zuten euskal idazleek?

- A. Irakurleek erabiltzen zuten euskalkian idaztea.
- B. Euskarak euskalki eta aldaera gehiegi zituela.
- C. Zein euskara erabili irakurle gehienek ulertzeko.
- D. Euskara batuak irakurle batzuk haserrarazi zituela.

05

Idatzi euskara batuaren aurkakoek erabili zuten argudio bat.

.....

.....

.....

06

Zer gertatu da euskara batua eta euskalkien artean?

- A. Euskara batuak ez du jarraitzailerik izan.
- B. Euskara batua denerako erabiltzen da.
- C. Euskara batua zenbait esparrutan hedatu da.
- D. Euskalkiek lehen baino garrantzi handiagoa hartu dute.

07

Zergatik dira euskara batua eta euskalkiak osagarriak?

- A. Euskara batua autore klasikoetatik hartua delako eta euskalkiak herritik.
- B. Euskara batua euskalkiak bateratzeko eta indarra emateko balio duelako.
- C. Euskara batuak hezkuntzan, hedabideetan eta Administrazioan erabiltzen delako eta euskalkiak herri mailan.
- D. Euskara batua Administrazio txostenetan erabiltzen da soilik; euskalkiak, berriz, herri mailan eta familian erabiltzen dira.

08

Ze mezu helarazi nahi du testu honen egileak?

- A. Euskara batuaren alde egin nahi du.
- B. Euskararen batasuna nola gertatu zen azaldu nahi du.
- C. Euskara batuaren aurkako iritziak azpimarratu nahi ditu.
- D. Euskara batua eta euskalkiei buruz duen iritzia eman nahi du.